

BEZEROARENTZAT BALOREA SORTZEN DUTEN ELEMENTUAK

Gure produktua berritasun bat da, hau da, merkatuan berria den produktu bat sortzea da gure ideia. Gure ideia, zerutik ibiliko diren dron batzuen bitatez, gizarteak sortzen duen ke kutzagarria xurgatzea da (fabriketako, garraiotako...).

Dronek xurgapen aurreratuko teknologia erabiliko dute iragazki espezializatuekin batera, airetik ke-partikulak ateratzeko eta nabigazio sistemak izango dituzte kutsadura-maila handiko eremuak identifikatzeko, eta zonalde horietako kea kentzeko.

Bezeroari zenbait lan egiteko erraztasuna ematea da gure helburua, hau da, fabrikeri dron hauek saltzean, tuberietan erabiltzen dituzten filtroetako gastuak murrizteko balio dute. Gainera, gure produktua enpresa guztietara egokitzen da, horrez gain, garraio guztiek sortutako kutsadura zurruputzen du.

Fabrikak, industria-instalazioak edo ke-emisioak eta kutsatzaile atmosferikoak sortzen dituen edozein instalazio, ekoizpen-prozesuen ondorioz. Enpresa horiek droneak erabil ditzakete iragazkiekin lotutako kostuak murrizteko eta haien ingurumen-inpaktua hobetzeko.

Gobernu-erakundeak: Ingurumen-kutsadura arautzeko eta kontrolatzeko ardua duten gobernu-erakundeak bezero potentzialak izan daitezke. Droneak eremu espezifikoetan kutsadura kontrolatzeko eta murrizteko tresna gisa erabil daitezke, ingurumen-araudiak betez.

Alde batetik, gizartearekiko arriskua murrizten du, izan ere, gaur egungo kutsadurarekiko egoera larria da, eta dronaren erabilerarekin, arazo larri hau konpondu genezake.

Bestetik, erreztasuna ekartzen dio gizarteari, izan ere, gure proiektua abian jartzean, gizakiok kutsadurarekiko dugun erantzunkizuna txikiagoa bihurtzen da, horrez gain, erantzukizun gutxiago edukiko ditugu, hau da, gizartearen egin beharrekoak kutsadura sahiesteko, murriztu egingo dira, dronak guri dagozkigun betebeharrak beteko baititu.

Iragazkien gastuak murrizten lagunduko du, kea iturrietatik zuzenean xurgatzean, lantegietako hodiedan iragazki garestien beharra murriztuko da eta kostuak murriztuko dira.

Ingurumen-garbiketaren eraginkortasunak bezeroak erakarriko ditu, enpresek hobekuntza nabarmenak izango dituzte ingurumen-inpaktuari dagokionez, eta iraunkortasunarekiko konpromiso sendoagoa erakutsi ahal izango dute.

